

«Kuban gu baino askoz gorago
daude genero-berdintasunean»



MARIA TORRELLAS
«Cubanas, mujeres en revolución»
dokumentalaren egilea

hirulka

133. zenbakia

2018ko irailaren 13tik 19ra arte

Bueltan da Vuelta

Vuelta Uribe Kostatik joan da, baina bueltan da Euskal Herrian. 1978an utzi zion itzuliak EAetik igarotzeari; 1994an, Nafarroa Garaitik. 2009an, Getxon abiatu zen Vuelta Hego Euskal Herrian berrezartzeko estrategia, eta 2018ko Getxoko etapak normalizatu du itzulia.



BENDEJA GETXON | 4

BARAZKIAK KALEAN SALTZEA DEBEKATUTA

Udaltzainak Itzubaltzetako elizan ipinitako salmenta-postua kentzera joan zaizkie birritan Peio Fuente baserritarrari.

AUTOBUSEN HISTORIA | 8

ERAKUSKETA ETA BERBALDIA, PLENTZIAN

Miguel Martín Zurimendik errepide bidezko garraioak izandako bilakaeraz berba egingo du Goñi Portalen.

MATRIKULAZIO-SASOIA | 9-16



HEZKUNTZA GEHIGARRIA

Erdiko orrietan, eskualdeko akademien eskaintzak.

KULTURAREN KONTSUMOA | 18-19

URIBE KOSTAN DAGOEN ESKAITZA, AZTERBIDE

Urtean zehar askotariko ekitaldiez goza daiteke, han eta hemen. Eskaintza erakunde publikoek zein herriko taldeek osatzen dute.

Bederatzi urteren ostea



Jonathan Castrovieji bere kirol-ibilbideagatik aitormena egin ondoren abiatu zen Getxoko etapa.

Milaka pertsona batu zen atzo Getxon, Leioan eta Erandion, errepideko bazterretan, Espainiako Vueltaren inguruan. Kirol-ekitaldiaz gozatzeko aukera izan zen, Euskal Herriaren aldeko mezu ugariren artean. Jonathan Castroviejok saria jaso zuen eta Javier Otxoa egon zen zaleen bihotzean.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ARGAZKIAK: HODEI TORRES / OSKAR GUTIERREZ ►

Testu hau irakurtzean, daborduko badakizu nork irabazi zuen Oiz mendiko helmugan, zeinek daroan maillot gorria eta zer erakustaldi eman zuten atzo euskal txirrindulariek. Hala, artikulua honetan ez zaitugu horregaz aspertuko. Uribe Kostak Vueltaren inguruan bizitakoaren kronika bila bazatoz, eskumako orrialdean topatuko duzu.

Hurrengo eguneko sindromeak hainbat egoerari ematen die izena: alde batetik, lehia profesionalari uzten dioten goi-mailako kirolariei; beste aldetik, alkohola edo beste drogak kontsumitzeagatik edo kontsumitzen uzteagatik gorputzak jasaten dituen kalte fisiko eta psikikoei. Metaforikoki, bietatik du Espainiako Vuelta Getxotik pasatu izanak.

Ia bederatzi urte pasatu dira Getxoko Udalbatzak onartu zuenetik Espainiako Vueltaren etapa baten irteera edo helmuga eskatzea 2011ko edizioan. Albiste entzutetsua izan zen orduan, 1978tik ez zelako Vuelta sartzen Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan; eta 1994tik, Nafarroan. 2009ko azaroaren 27ko

300.000

euroko etekina eragin du Bizkaiko ostalaritzan Espainiako Vueltak, Foru Aldundiaren arabera. Etapan zuzenean edo zeharka lan egin zuten 3.500 lagunek behar izan zuten aterpea.

2009

urtean Getxoko Udalbatzak onartu zuen, ilegalizazioari esker, Espainiako Vuelta Getxora ekartzeko PPK aurkeztu zuen mozioa. Halere, Udalak ez zuen etaparik eskatu. PPK eskaera errepikatu zuen 2011n eta 2014an.

udal-bilkuran, PPK PSE-EEren sostengua lortu zuen; hala, EAJk eta Alternatibak proposamenari ezetza eman bazioten ere, Getxo Bizia ezker abertzalearen zerrenda ilegalizatu izanak eragin zuen alderdi espainiarrek botazioa irabaztea. Dena den, Imanol Landak zuzendutako Udal Gobernuak «adierazpen-moziotzat» jo zuen testua eta ez zuen Vueltako etaparik eskatu. 2011n, Bilboko etapa bien «arrakasta handia» ikusi ondoren, Marisa Arrue zinegotzi popularra berriro ere ahalegindu zen, 2012ko edizioari begira. Baina udal-zerrenden ilegalizazioa amaituta, mozioak ez zuen aurrera egin. Urte horretan, Barakaldotik atera zen Espainiako probaren beste etapa bat. Urte bi horietan, ESAIT elkarteak euskal naziotasuna aldarrikatu eta muturreko espainiarzaleen mezuei aurre egin zien errepideetan. Halere, 2015ean hirugarren saiakera egin zuten popularrek, aurrekoaren emaitza beragaz. Hurrengo urratsa ez zuten popularrek eman, Bizkaiko Foru Aldundiak baizik.

TOURRARI BEGIRA. 2016ko abuztuan, Espainiako Vueltak beste etapa bi egin zituen Bizkaian, Bilboraino eta Bilbotik. Unai Rementeria diputatu nagusiak autoa partekatu zuen Javier Guillén Vueltaren zuzendariagaz. Biak batu ziren Aldundian Christian Prudhomme Tourreko zuzendariagaz eta adostu zuten 2018an Vueltak Bizkaian helmuga «izugarri» bat izan zezan lan egitea. Ildo horretan, Juan Mari Aburto Bilboko alkateak gorago egin zuen tiro: «Tourra orain arte ametsa baino ez zen, orain benetakoa aukera da». Aburtoren ustean, «ziur nago Frantziako Tourra Bilbora helduko dela. Ez dugu esango 2019an, ez daukagu

n, zer utzi du Vueltak?



Erabakitze-eskubidearen, pentsio duinen eta euskal presoek hartu zituzten espaloiak.

argi ezta ziur ere. Izan daiteke 2019an edo 2020an: Tourrak Bilbora etorri gura du». Unai Errementeriak joan den urtarri-lean ez zuen hainbeste ziurtatzen, atzoko etapa aurkeztean: «Zinez uste dut etapa ez dela Bizkaiko Balkoian amaituko. Uste dut bertatik igotzen segitu dezakegula. Tourreraino? Momentuz ametsa izaten jarraitzen du. Gero eta hurrerago dagoen ametsa». Imanol Landa Getxoko alkateak, berriz, «egundoko albistetzat» jo izan du etapa Getxon abiatzea, Getxoko kostaldea, hondartzak, Portu Zaharra, Bizkaiko Zubia eta gurutze-ontzien kaia kanpoan ezagutaraziko duelakoan.

«VUeltARIK IRAUNKORRENA». Espainiako Vuelta antolatzen duen Unipublic enpresak zabaldu duenez, aurtengoa da jokatzen dabilen ediziorik jasagarriena ingurumenaren aldetik. Horretarako, hainbat neurri ipini dituzte martxan, Vueltak mendi, larre eta herrietan zaborra eragin ez dezan. Hasteko, laugarren urtez segidan Ecovidriogaz egin dute *Beira birziklatu eta pedalei eragin* kanpaina. Modu berean, Global Nature fundazioak hezitako zenbait boluntariok garbiketa-lanak egin dituzte zortzi helmugatan, tartean Oiz mendikoan. Izan ere, Rementeriak aurretik agindu zuen Getxo-Munitibar etapa «jasagarria» izango zela eta «ingurumena zainduko» zutela. Egunotan eza gutuko dugu bertoko udalen garbiketa-zerbitzuek egingo duten balorazioa. Dena den, hainbat salaketa izan dira: Coruñaiko Estaca de Bares herrian 18.000 litro zabor batu zuten ekologistek; Granadan ere, Sierra Nevadan, Vueltak utzitako ehunka zarama-kilo bildu zuten naturaren aldeko ekintzaileek. ◀



«WNT Madrid Challenge-a antolatzea aukera ona iruditzen zait, baina espero dut etorkizunean egun gehiagoko itzulia bihurtzea»

ANE SANTESTEBAN GONZÁLEZ
9. GIROAN ETA TOURREAN (ALÉ CIPOLLINI)



«Vuelta egun batetik bira pasatu izanari ondo deritzot, baina nire moduko lasterkariak etaparen bat gehiago beharko lukete»

ENARA LÓPEZ GALLASTEGI
BIZKAIKO ERREPIDETXAPELDUNA (MURIAS)

Espainiako Vueltak ez dio faktura pasatu Getxoko Udal Gobernuari

Bizkaiko Foru Aldundiak ordainduko du Getxoko etaparen faktura. Javier Guillen Vueltako zuzendariak emandako datu hori argitaratu du *Berria* egunkariak. Unipublic enpresa antolatzaileari eskubideengatik pagatu beharrekoa 130.000 bat euro izango da; Oiz mendiko pista konpontzea eta bestelako gastuak alde batera utzita.

Hala, negozio ederra egin du Getxoko Udal Gobernuak, merke baino merkeago atera baitzaio Getxoren marka milioika laguni belarrira hurreratzea. Ez soilik 2009ko, 2011ko eta 2014ko mozioetan PPK Getxoko Udalari egokitu ziolako etaparen kostua, eta hori aurrean doan atera zaiolako (segurtasun-, komunikazio-, azpiegitura- eta garbiketa-lanak zenbatu ezean). Kostu politikoa ere erabat txikia izan du, ilegalizazioaren eta unionismo sutsuaren garaian gertatuko ez zen legez. Algortako Kirol Portuan bandera espainiar bi baino ez dira ikusi, Espainiako Konstituzioak agintzen dituen modukoak, arrano barik. Beste aldean, Gure Esku Dagoren banderek, ikurrinek eta euskal presoek eskubideen aldeko ikurrek bete dituzte Getxo, Leioa eta Erandioko errepideak, euskal zaleek beti erakutsi duten errespetuagaz.

Etapak hainbat irudi utzi du: euskarari lekua emateko saiakera estimagarria baina ez nahikoa, Jonathan Castroviejori emandako merezitako saria, aurrekuaren eta bizikleta gaineko *break-danceren* hibrido eztabaidagarria eta Punta Galea elkartearen presentzia handia, Javier Otxoaren hutsuneagaz batera.



Emakumeentzako itzuli handiak

Tourrak, Giroak eta Vueltak osatzen dute hiru asteko txirrindularitza-proben aparteko kluba; Euskal Herriko Itzulia berriz, bost egunekoa da. Gizon euskaldun batek ere ez du lortu aurreko Tourrean eta Giroan, biek, lehenengo hamarren artean sailkatzea. Ostera, Ane Santesteban errenteriarra sailkatu da bederatzigarren Giroan, hamar etaparen ostean, eta La Course-n, etapa bakarreko emakumeentzako Tourrean. Gainera, hamaikagarren izan da lau etapako Emakumeen Biran. Halere, itzuli handietan kilometro gehien bete duen emakumea Claire Floret baionarra izan da, gizonezkoen Tourreko 3.349 kilometroak igarota.

Laugarren urtez segidan, Floretek *Donnons del elles au Velo* ekimenean parte hartu du, gizonezkoen Tourreko etapak ibilgailuen artean zeharkatzen, egutegi ofizialaren aurreko egunean. Dozena bat emakume gehiago izan dira tropelean beragaz, hainbat etapako Tourra aldarrikatzeko, alegia, 1989ra arte zen bezalakoa. Espainian ere pelotoia mugitzen hasi da. Aurreko, WNT Madrid Challenge Vueltako emakumeen lasterketak etapa bi izango ditu, bat beharrean.

«Baserriak emandakoak hurreratzen dizkiegu kalekumeei»

Ezagutu gaitzazu!!!

Yes

BAI

Oui

KALITATEA ERASMUS+

Innovación

Auzolana

Berrikuntza

KIVA

Guarderia

Jantokia

Eskola

Kopelak

Bereizketa

Zabala kooperatiba

Leica

Berango

Sopela

Algora

1-56 4044

Desde 1963

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Arene azpi, 15)
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

ERANDIO | Altzaga ikastolaren 50. urteurrena

Euskaraz, herria egiten

Ikasturte honetan 50 urte beteko dira Altzaga ikastolak lehenengo ikasgela zabaltu zuenetik. Orduko eta gaurko protagonistek gakoak azaldu dituzte.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Erandion ikastola bat sortzeko erabakia Ibaimendi Artea elkartearen inguruko lagun-talde batek hartu zuen, 1968ko Agate Deuna ospatu baino egun batzuk lehenago. Karlos Fano Oraienek, sasoi hartan ETako militanteak, konbentzitu zituen horretarako, «euskaraz eta euskara irakasteari erantzuna» izango zelakoan, Txetxu Aurrekoetxea sortzaileetakoak Altzaga ikastolaren 25. urteurrenako liburuan gogorarazi zuenez. Urte hartako sanagustinetan umeak eroango zituzten gurasoak lotu zituzten, eta irailean Bilbora jo zuten, irakasle baten bila. Euskerazaleak kulturgunean topatu zuten Mari Karmen Goiriena, Nabarnizko batxilerra, Magisteritzan hasi aurretik euskara idatzian hobetzen zebilena. Hark kontatu duenez, «guraso bik galdetu zidaten ea prest nengokeen Erandion eskolak emateko eta nik baietz; segidan hasi ginen». Sei ume izan zituen lehenengo urte hartan San Jeronimo kaleko 22. zenbakiko gela inprobisatuan, Ibaimendi Arteako egoitzan. Goirienak zazpi urte eman zituen ikastolan.

URTEMUGA PRESTATZEN. 50 urte pasatuta, joan diren sanagustinetan bueltatu zen Goiriena Erandiora, pregoia irakurtzera. «Hunkigarria izan zen; ez nuen espero. Hainbeste urteren ostean gonbidapen hori jasotzea, antzinako ikasle eta guraso batzuek egotea... Polita izan zen». Ikastolak urtemugako logotipoa aurkeztu zuen joan den ikasturtearen amaiera-festan; eta kamisetak ere atera ditu, Amaia Aranaga IGEko presidente eta



Sei ikasle zituen ikastolak 1968an; 794 dira gaur egun. © ERANDIOKO ALTZAGA IKASTOLA

San Jeronimo kaleko gela batean hasi zen ikastola.

50. urteurrenerako batzordeko kideak azaldu duenez. Aurrera begira, ideiak borborka dituzte: Bekoa eraikina berrinauguratuko dute, Leioako Alzagagaz ibilaldira bat prestatzeko asmoa daukate, sukaldaritza-jardunaldiak egingo dituzte eta hamaika sorpresa gehiago gordetzen dituzte. ◀

Potxingoak kaleetan



ANA TERESA ESCUDERO BIZKARGUENAGA
Kazetaria

Altzaga ikastola, 1968-2018

Ospakizun urte honen lehenengo bolandera bota dogu. Airean daborduko hainbat oroitza, amets, fustrazio eta batez be, etorkizunari begira, ilusinoa.

Urtero legez, aurren be, hainbat familiak euren umetxua «sartu» dabe ikastolan, eta beste hainbaten nerabeak «urtengo» dabe ikastolatik. Hamalau bat urte hazten eta hezten, euskaraz, bardintasunean, eta batez be bizitza guztirako erreferentzia izango dan komunitatearen parte izaten. Altzaga da euren etxea! Altzaga da gure etxea!

Orain dala 50 urte proiektu hau amestu ebenentzat ez zan erreza izan, halan be umeak bialdu ebezan «ikastola» deitu eben pisu batera. Aurren, proiektu honetan sinistu daben hainbat gurasorentzat be ez da erraza izan; baina zuloz, itokinez eta zementuz betetako eskolara eroan dabez umeak.

Ikasle kopurua ehunka biderkatu da. Helburuak eta beharrak, aldiz, ez dira asko aldatu. Erandion kalitatezko hezkuntza eskaintzea euskaraz. Ziklo bat bete dogu, gure lehenengo 50 urteak bete doguz, eta danon artean ospatu gura dogu. Ahoz aho, whatsapppe, txioz edo txalapartaz deitu dagiogun Alzagako komunitate osoari, historia eta etorkizuna, urrezko ospakizun honetara.

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

Illeta, 1 · 48991 ALGORTA
944 305 243 · 607 952 977
regaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz

MARIA TORRELLAS | Kazetaria eta dokumental-egilea

«Emakumeak dira kubatar iraultzaren euskarri nagusia»

Irailaren 7an eman zuten, European Lehenengoz, *Cubanas, mujeres en revolución* dokumentala, Itzubaltzetako kultur etxean. Maria Torrellas *Resumen Latinoamericano* aldizkariko kidea da filmaren zuzendaria.

UNAI BREA ►



Filmazio osoa iaz egin arren, hamalau urte eman ditu Torrellasek dokumentalaren proiektua gauzatzen. HODEI TORRES

Zerk bultzatuta erabaki zenuen *Cubanas, mujeres en revolución* egitea? Oso aspalditik piztu dit arreta emakumeen borrokak, ez bakarrik orain, modakoa denean. Eta kubatar emakumeak bereziki interesatu zaizkit han egon nintzen lehenengo alditik, 1993an. Ikaragarria iruditu zitzaidan zelan egiten zieten aurre zailtasunei. Kubak dena dauka blokeatuta, ez da sines-tekoa herri horrek aurrera egin izana. Eta uste dut emakumeak direla kubatar iraultzaren erresistentziaren euskarri nagusia.

Hala ere, kanpotik begira gaudenontzat behintzat, maskulinoak dira haren ikur nagusiak: Fidel, Che... Dokumentalean aipatu ditugun andrazko konketuak, izen-abizendunak, eza-gutu bakarrik ez, gurtu egiten dituzte Kuban. Celia Sánchez, Haydeé Santamaría, Vilma Espín (Kubatik kanpo ere sano eza-guna)... Eurez berba egiten dizutenean malkoek ihes egiten diete begietatik. Batez ere kanpokook lotzen dugu iraultza beti Fidelegaz, Chegaz, Raúlegaz [Castro]... Patriarkatuaren arazoetako bat da hori: gizonezkoen aurpegi bitartez erakusten dizkigu borrokak, baita kubatar iraultza ere, han emakumeek oso protagonismo handia izan zuten arren.

Fidel Castrok dokumentalean duena ez da txikia... Haiek aipatzen zuten eta! Dokumentalean berba egiten duten emaku-

Asturiasen jaioa, bihotzez euskalduna

Avilésen jaio zen Maria Torrellas, 1955ean. Aspalditxotik Argentinan bizi da (hangoa du bikotekidea), baina hainbat urtez Berangon eduki zuten bizilekua. Bertan ikasi zuen euskara, eta euskal herritarra dela aldarrikatzen du orduetik. «Frankismoaren errepresioa jasandakoa naiz, familian hildakoak eta guzti, eta beti ibili naiz nire nortasuna bilatzeko borrokan; «Espainia» berba entzun eta oilo-ipurdia ipintzen zaitzaidan, nik ez nuen horkoa izan gura. Euskal Herriaren borrokak erakarrira etorri ginen hona, eta nire herria hau zela sentitu nuen». Argentinako lagunek *La Vasca* esaten diote orain.

meak, alegia. Fidelek iraultza osoa eman du gizonek emakumeekiko berdintasunaren kontra jar ez zitezen ahaleginean. 60ko hamarkadan bazerabilen berdintasun-diskurtsoa, genero-ikuspegia gaur egungoa bezain garatuta ez zegoen garaian. Humanista handia zen, eta ikuspuntu hori zeukan.

Filmaren hasieran asko azpimarratzen dira iraultzak lan-eremuan emakumeei eman dizkien berdintasun-aukerak. Gero, oster, familiaren alorrean egiteko dagoenaz berba egiten da. Legeei dagokienez lorpenak izugarriak izan dira, batez ere Latinoamerikako beste herrialdeakaz konparatuta. Hezkuntza dohainik unibertsitatera arte, ondoren lan egiteko aukera, soldata-berdintasuna. Kuban inori ez zaio bururatzen emakume bat bortxatzea, legeak oso gogorrek direlako, eta gainera sexu-askatasuna dagoelako gizon zein emakumeentzat.

Zer dago egiteke, orduan? Giza harremanak eraldatzea. Hangi emakumeek diote kultura aldatu beharra dagoela, aspaldiko kultura hori, judu-kristaua, konkistatzaileek eroandakoa... Etxe barruko eta bikotearen barruko berdintasuna, horretan dabilta orain beharrean. Baina abiapuntua hemengoa baino hobe da, gu baino askoz goragoko mailan daude berdintasunaren alorrean. ◀

JUAN MARI

Harategia Urdaitegia



Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25



KULTUR ELKARTE & TXOKO EUSKALTZALEA
BAZKIDE IZAN GURA?
WWW.AZEBARRI.EUS / EUSKAL HERRIA 14, ALGORTA



URIBE KOSTA | «Tosutik Uribe Kostara» jardunaldiak

Eskualdeko hirigintza-eredua salatzekeo jardunaldiak, abian

Uribe Kostako herriek dituzten hainbat arazo aztertuko ditu Tosu Betirakok, gaiok landuko dituzten mugimendu bat eratzekeo helburuagaz. Ekimena martxa bategaz amaituko da, hilaren 21etik 22ra.

IKER RINCON MORENO ▶

Udako geldialdiaren ostean, indarrez beteta hasi du ikasturte berria Tosu Betirako Asanbladak. Izan ere, joan den astelehenean, hilaren 10ean, eman zion hasiera «Tosutik Uribe Kostara» izeneko ekimenari. Ekin-tzaileek askotariko gaiak jorratzen dituzten jardunaldiak antolatu dituzte egunotarako, herriz herri. Iniziatiba horren bitartez salatu gura dute «herrien etorkizuna gutxi batzuek, herritarren iritzia kontutan hartu gabe» planifikatzen dutela.

Kolektiboak adierazi duenez, Getxoko Ibarbengoako aparkalekuaren aurkako borroka «gure eskualdean dagoen problematikaren aurpegi nabari bat izan da». Uribe Kostako udalerrien diseinua gutxi batzuen esku egotea eta gehiengoaren iritzia aintzat ez hartzea kritikatu dute: «Gure lurrak espekulaziorako objektu bilakatu dira, azken berdeguneak mozkinen ize-nean porlanez estaltzen dira».

Tosukoa testuinguru horretan sortutako borroka bat baino ez dela izan azpimarratu dute. Hala ere, arazoa «globala» den bitartean, erantzunek ere mota horretakoak izan behar dutela ondorioztatu dute. Hori dela eta, «Tosutik Uribe Kostara» jardunaldiak antolatu dituzte Berangon, Getxon, Gorliz, Leioan eta Urdulizen, irailaren 10etik 20ra bitartean. «Herri bakoitzean dauden arazoak aztertuko ditugu jardunaldiotan, gaia landuko duen mugimendu bat eratzekeo helburuagaz», Gainera, irailaren 21a (barikua) eta 22a (zapatua) bitartean, ekimenari amaiera emateko martxa bat egingo dute Erandiotik Gorlizera. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, bariku arrastian Erandiotik Getxora joango dira, eta, biharamunean Gorliz-erantz abiatuko dira.

BESTE HERRI-EREDU BAT. Berangon egin zuten jardunaldien lehenengo saioa, Nebarrebak tabernan. Bertan, Berango «lota-



Askotariko gaiak jorratuko dituzte jardunaldietan. © TOSU BETIRAKO

«Tosutik Uribe Kostara» jardunaldiak

Irailak 18, martitzena

19:00 «Portana edo jana, desarrollismoa nekazaritzarekin talkan», Urdulizko kultur etxean.

Irailak 19, eguaztena

19:00 «Bilbainos Go Home? Herri udatjarren problematika», Danontzat gaztetxean.

Irailak 20, eguna

19:00 «La fiebre del cemento, corrupción en UK?», Itzubaltzetako nagusien etxean.

rako herria» dela deitoratu eta herri-eredu hori zalantzan ipini zuten, Iñigo Galdeano arkitektoaren berbaldiaren bitartez. Hurrengo egunean, martitzenean, Leioako nagusien etxean bildu ziren, udalerrri horretako mugikortasunaren nondik norakoen inguruan hausnartzeko. Eguaztenean, aldiz, Getxoko prozesu parte-hartzaileez jardun zuten Algortako Villamonte kultur etxean; zehazki, «bidea da ala tranpa?» galderari erantzuteko eztabaida piztu zuten.

Oraindino ere zertaz jarduteko aukera ere badago. Irailaren 18an, martitzenean, Urdulizen bilduko dira, kultur etxean. Jardunaldi horretan, inguruotan indarrean dagoen garapen-ereduaren eta nekazaritzaren arteko talkari helduko diote, 19:00etatik aurrera. Hurrengo egunean, eguaztenean, Gorliz eta Plentziako Danontzat gaztetxean udaldirako herrien arazoez jardungo dute, aurreko saioaren ordu berean. Azkenik, egunean, hilaren 20an, Ahoztar Zelaieta kazetariak ustelkeriaz berba egingo du. Hitzordu hori Itzubaltzeta/Romoko nagusien etxean izango da, 19:00etan baita ere. ◀

On-line denda

Bio Zelai

www.biozelai.com

Elikagai ekologikoak

Ekoizleak eta banatzaileak

Etxez etxeko zerbitzua

info@biozelai.com | T: 685.798.567 | GATIKA (Bizkaia)

Irunbat
galp energia

Martitzen eta zapatuetan
ESKAINTZA
BEREZIA

Loiola Ander Deuna, 74 · 946 764 625 · www.irunbat.net

GARRAIOA | Autobusaren historia Bizkaian

Autobusa eta trena elkarren osagarri

Plentziaclassic elkarteak antolatuta, Bizkaiko autobus bidezko garraioaren historiaz berba egingo du Miguel Martín Zurimendik, gaur, irailaren 13an, Plentziako Goñi Portal kultur etxean, 19:00etan. Erakusketa ere ipini dute.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Ehun urte baino gehiagoko historian, asko aldatu da bidaiarien errepide bidezko garraio publikoa; hasierako diligentzietatik eta autobus zaharretatik hasi eta gaur egungo zerbitzu modernora arte, errepasoa egingo du Miguel Martín Zurimendi bilbotarrak, Plentziaclassic elkarteak gonbidatuta egingo duen berbaldian. Gainera, bereziki, Bizkaiko autobus bidezko garraioak Uribe Kostan izan duen bilakaeran zentratuko da ofizioz medikua den eta afizioz «oroitzapenak gordetzea» gogoko duen gizon honek. «Umezaroa eta gaztaroa gogoratzen didate autobusek; eskolara joateko edo txangoetan denok erabili izan ditugu garraiobide horiek. Garai horietako autobusen argazki bat ikusten dudanean irribarretsu jartzen naiz», adierazi du hizlariak. Ekitaldia Plentziako Goñi Portal kultur etxean egingo dute, irailaren 13an. Hitzordua 19:00etan izango da; sarrera, doan.

Berbaldiagaz batera, *Historia del transporte público por autobús en Bizkaia* erakusketa izango da ikusbide, leku berean, irailaren 16ra arte. Argazkien, marrazkien eta testuen bidez, irakurleek erraz ulertuko dute zelan aldatu diren garraiobideak azken hamarkadetan; esan legez, Uribe Kosta eskualdean zentratu dira, gehienbat. Erakusketa Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu zuen 2017ko neguan eta udaberrian, errepide bidezko garraiobideen inguruko hainbat argazki eta objektugaz. Horretan oinarritu ziren handik hilabete gutxira Martín Zurimendik berak idatzitako liburua atontzeko.

HASTAPENAK. Miguel Martín Zurimendik azaldu duenez, industrializazioak erabat aldatu zituen merkantziak eta pertsonak garraiatzeko moduak: «Bizkaia Espainia osoko errepide-sarerik osatuena zeukan arren, XIX. mendearen hasieran trena bultzatzen hasi ziren, itsas-portuetara joateko mendi-lerroak zeharkatu behar zituzten mando-lerroak eta diligentziak ordezkatzeko», azaldu du autobusetan zaletuak. Elkarren osagarri, garai berean sortu ziren errepide bidezko lehenengo garraio kolektiboak Bizkaian: kostaldetik abiatzen ziren lurraldean ikus zitezkeen lehenengo autobus horiek; tren-geltoki



Bilbo eta Lemoiz arteko bidea egiten zuen autobusak, 1920ko hamarkadan. EUSKOTREN / BURDINBIDEAREN EUSKAL MUSEOA

Autobusa gurean

- Eskualdeko herrietatik igaroz, Lemoiz eta Bilbo arteko bidea egiten zuen autobusa agertu zen 1920ko hamarkadan; tren-geltokietan ere geldialdiak egiten zituen.
- Areetako trolebusa autobus bilakatu zen 1940ko hamarkadan. Handik hogeitaz urtera, Ferrocarriles y Transportes Suburbanos enpresak hartu zuen. Bilbotik Algortako eta Azkorriko hondartzetara ere joaten zen garraioa; eta, handik gutxira, Lemoiz eta Bilbo arteko linea sortu zuten, Sopelatik igarota. Plentzia eta Bilbo arteko ibilbidea ere bazeukaten.
- Loiotik eta Mungiatik Bilboranzko autobusak ere beti igaro dira Uribe Kosta eskualdetik.

garrantzitsuenen eta herrien arteko lotura egiten zuten. Uribe Kosta ez zen salbuespena izan. Hala ere, Martínek argitu duenez, «historikoki motorizazioa oso txikia izan da eskualdean: ibilgailu pribatu eta taxi gutxi zegoen. Gainera, beste, inguru batzuetan ez bezala, Plentzian trena bazegoen». Bilbotarraren ustez, horrek eragina izan du Uribe Kostan autobus gutxiago egoteko. Gurean inon baino gehiago, elkarren osagarriak ziren autobusa eta trena.

AREETAKO TROLEBUSA. Lemoiz eta Bilbo arteko autobusa ahaztu barik, Areetako trolebusaz berba egin digu Martínek. Garraio-mota hori 1940ko hamarkadan sortu zen; besteak beste, Areetakoa trenagaz lehiatzen zen, azken hori lurrin bidezkoa zelako. Baina 1946an lurrunezko trena elektrikoa izatera igaro zen, eta kontua aldatu egin zen. «Zerbitzu gehiago eskaintzen zituen tren elektrikoak. Hori dela eta, trolebusak autobus bilakatu ziren». Erabaki horren ostean izugarritzko garapena izan zuen Areetako trolebusa izandakoak: 1960ko hamarkadan, Ferrocarriles y Transportes Suburbanos enpresak hartu ostean, besteak beste, Lemoiz eta Bilbo arteko linea sortu zuten, Sopelatik igarota, eta Plentzia eta Bilbo arteko ibilbidea ere bazeukaten. ◀



Gatzarriñe bidea, 47 · 48600 SOPELA info@anderdeuna.eus
946 760 266 · 689 01 04 28 www.anderdeunaikastola.eus

Ikasturtea hasteko aukerak esku-eskura

Etorkizunerako plan berriak egin edo lehengoak biziberritzeko sasoian gaude. Behartuta edo gurariz, aisialdiaren zati bat jakintzaz asetzero bideratuko dugu askok: musika, hizkuntzak... Hemen duzu horretarako eskaintza onenaren gida.



Getxoztarrei ateak zabalduz

Abuztuaren 30ean ate irekien jardunaldia egin zuen Real English Getxo hizkuntza-eskola, modu ezberdin batean ingelese ikasi edo hobetu gura zuten denentzat; ikasleak, ikasgelak, ikastaroak, ordutegiak... ezagutzeko aukera egon zen. Ez ohiko hizkuntza-eskola da Real English Getxo. Duela hamabost urtetik Euskal Herrian bizi den Carlos Rey-Surman britainiarrak zuzentzen eta bultzatzen du. Rey-Surman Cambridgeko Unibertsitatean lizentziaduna da eta hamarkada bat baino gehiago daroa hizkuntza-trebakuntzan lanean. «Hezkuntzaren edozein esparrutan, ikasleek egiten ari direnaren benetako interesa ipintzea da garrantzitsua», Rey-Surmanek dioenez. Maila alde batera utzita, ikasleak motibatzea da Real English Getxo eskolaren gako nagusia.

Hezkuntza-eskola berri honek trebakuntza berritzailea garatu du, umeentzat zein helduentzat. Euren ikasketa-ereduaren giltza ahozko adierazpidea indartzea da; horretarako, elkarriketan oinarritutako metodologia erabiltzen du. Rey-Surmanen ustez, «hizkuntza bat menperatzeko modurik onena da hori. Mintzakeran aurrera egiten eta baten batzuek ingelesez berba egiteko orduan sentitzen duten lotsa gainditzeko laguntzen du horrek». Cambridgeko azterketa ofizialak prestatzeko eskolak ere ematen ditu hizkuntza-eskola honek.

Karisma handiko irakasleek lan egiten dute hizkuntza-eskolan; hezkuntzaren munduan ibilbide luzea daukate, helduakaz zein umeakaz lan egiten. «Real English Getxo hizkuntza-eskolan, gure ikasleen jarduna testu-liburu bati bakarrik jarraitzea ez mugatzea da gure helburua; ikasleek esperientzia emankorra eta ahaztezina izatea gura dugu».

Trebakuntza berritzailea

Motibazioa

Ikasleek egiten dutenaren benetako interesa ipintzea da garrantzitsua.

Ikasketa-eredua

Ahozko-espresioa indartzea da giltza; horretarako, elkarriketan oinarritutako metodologia erabiltzen du Real English Getxo eskolak.

Irakasleak

Karisma handikoak dira; hezkuntzaren munduan ibilbide luzea daukate, helduakaz zein umeakaz lanean.



Cambridgeko azterketa ofizialak ere presta daitezke Real English Getxon.

«Musikagaz gozatzea gura dugu»

Soinu Musika Eskolak 30 urteko eskarmentua dauka musikaz gozarazten. Zazpi ikasgela daukate; musikarekiko grina transmititzen dute, eta ikasleek gura duten instrumentua aukera dezakete. Soinun araututako eta arautu barietateko musika-irakaskuntza ematen dute; batetik, banakako eta taldekako irakasgaiak; eta bestetik, osagarriak diren jarduerak: korua, orkestra, eta abar. Horrez gainera, aurten eskaintza berri bat daukate: musikoterapia.

Algortatik Galeara joateko bidean, Borobia plazaren aurretik eskumara eginez gero, *Soinu Musika Eskola* irakur daitekeen karteltxoak ikusiko duzu. Leku magikoa da, argiz eta bibrazio onez betea; seguru asko, eskola kudeatzen duten pertsona biak sutuak, ausartak, baikorrak eta gogotsuak direlako, musika-ezagutza irakasteko eta zabalatzeko bada.

Soinu Musika Eskola 1988an zabaldu eta homologatu zuten; horrela lortu zuten ikasleek epaimahai arrotz baten aurrean azterketa egiteko trantze latza pasatu behar ez izatea. Zentroko arduradunek diotenez, «urte batzuk geroago konturatu ginen jendeak musikara hurbiltzeko zerabilen modua aldatu egin dela. Gaur egun, musikaz gozatzea bilatzen da», azaldu dute. «Sufritu barik ikastea», alegia. Ikasleek «gogoko duten kanta ezagunen bat jotzeko musika-tresnagura dute; horixe bera aukeratzen dute».

Halere, aitortzen dutenez, «gaur egungo musika aurretik izan ziren maisu handiei zor diegu. Horregatik, ez diogu inoiz utziko Chopin, Bach, Beethoven, Bartók eta halako egileen obrak lantzeari, The Beatles, The Rolling Stones edo gaur egungo egileen lanez gozatzeagaz batera». Soinu eskolaren ezaugarri nagusiak konfiantza eta ger-

Sufritu barik ikasi

Ibilbide luzea

Soinuk 30 urteko eskarmentua dauka musikaz gozarazten.

Tresnak

Ikasleek gura duten instrumentua aukera dezakete. Gainera, jarduera osagarriak daude: korua, orkestra, musikoterapia...

Gertutasuna

Ikasleek eguneroko bizitzan izan ditzaketen egoerak kontuan hartzen dituzte. «Ikasle bakoitza berezia da guretzat».



Musikagaz maitemindutako familia handi bat da Soinu Musika Eskola.

tutasuna dira: «Ikasleek, umeek eta helduek eguneroko bizitzan izan ditzaketen egoerak kontuan hartzen ditugu. Ikasle bakoitza berezia da guretzat».

Musikagaz maitemindutako familia handia da Soinu. «Gugaz abentura honetara bazatoz asko ikasiko duzu», hitz ematen dute. Edozein adineko jendearentzat zabalik dago eskola, aurretiko ezela-ko jakintza beharrik gabe. Joan eta hasi lehen egunetik jotzen!

Urtxintxa Eskola, balioak oinarri

Bizkaiko Urtxintxa Eskolak ikastaro-eskaintza zabala pres-tatu du 2018-2019 ikasturterako. Menu goxoa betiko ba-liaoakaz kozinatutako ikastaroetan. 32 urte daroztate lan horretan, eta aurrean ere feminismoan, inklusioan, umeen parte-hartzean, aniztasun funtzionalean, kulturartekotasu-nean, euskararen, aisialdian... trebatzeko aukera eskainiko diete hezi-tzaile, ikasle eta familiei.

Norbanako zein taldeei zuzendutako ikastaroak multzo bitan ba-natzen dituzte: iraupen luzekoak eta iraupen laburrekoak. Luzeen ar-tean daude, esaterako, Eraldaketarako Pedagogia eta Jarduera Femi-nistak Hezkuntzan: Hezkidetzak, Haurren Parte Hartzean Murgiltzen, Jolasguneen Azterketa eta Eraldaketa... Baita ere Jendarte Kultur Di-namizatzailerik eta Begirale zein Zuzendari ikastaroak; azken hiru ho-riek Eusko Jaurlaritzak emandako titulu ofizialak dira.

Begirale ikastaroan, hain zuzen, honako alorrak jorratzen dituzte besteak beste: talde-dinamikak, sexualitatea eta osasun-ohiturak, he-ziketa astialdian, begirale-tipologia, aniztasun funtzionala...

Jendarte Kultur Dinamizatzailerik ikastaroan, berriz, gai interesga-riak jorratuko dituzte elkartegintzan eta dinamizazio-zereginetan dabiltzan pertsonentzat. Esaterako, jendarte-psikologia eta talde-di-namika, suspertze soziokulturala, Euskal Herriaren marko sozio-po-litikoa, soziologia eta jendarte-aldaketa, partaidetza, elkartegintza...

Feminismoagaz lotutako ikastaroen artean aipatzekoak dira, bes-teak beste, Teoria Feministaren Oinarriak, Pedagogia Feminista eta Hezkidetzarako Estrategiak, Euskal Herriko Genealogia Feminista, Sexualitate periferikoak...

Jendarte- eraikitzen laguntzen

Ez-sexista

Feminismoa funtsezkoa da Bizkaiko Urtxintxa Eskolaren eskaintzan. Gaiagaz zuzenean lotutako ikastaroetan ez ezik, besteetan ere oinarritzeko da sexismoa gaingaitzeko heziketa.

Plurala

Bizikidetzak berdintasunean sustatzea da ikastaroen gakoetako bat.

Parte-hartzailea

Besteak beste, umeen parte-hartzea bultzatzeko dinamikak irakasten dituzte.



Hartzaile-mota askorentzako ikastaroak ditu Bizkaiko Urtxintxa Eskolak.

Horrez gainera, ikastaro laburren alorrean ere aukera ugari eman-go ditu aurrean Bizkaiko Urtxintxa Eskolak, esan bezala: Ipuin bi-dezko Balioen Transmisioa, Aniztasun funtzionala eta sexualitatea, Pedagogia Askatzaileak, Zeinu Hizkuntza, Jolasteka: Jolasaren Uni-bertsoa, Elkarbizitza Anitzera Gakoak...

Horietan guztietan metodologia parte-hartzaile, hausnartzaile eta kritikoa erabiliz egiten dute trebakuntza. Hizlari arituak, koordina-tzaile konprometitua eta ikasle aktiboak dituzte altxor.

arteskola
1991tik MARRAZKETA ETA MARGOLARITZA AKADEMIA
ACADEMIA DE DIBUJO Y PINTURA DESDE 1991

25 URTEURRENA
2018
25 ANIVERSARIO

TALDE TXIKIAK ARRETA
PERTSONALIZATUA

MAILA GUZTIAK
ARTE EDERRAK
BATXILER ARTISTIKOA
AMATEURRAK ***

HELDUAK HAURRAK 4 URTETIK AURRERA

OLIOA AKUARELA AKRILIKOA ARKATZA ...

ASTELEHENETIK LARUNBATERA GOIZEZ ARRATSALDEZ

ESKANTZA BEREZIA 65+

BERRIA ARTESKOLA EXPRESS

ARTESKOLA ARTE AKADEMIA

KLASEAK ERREKUPERATU KLASE BAT DOAN

INFORMA ZAITEZ
944 911 887
666 921 919
arteskola.net

94 612 16 98
aldapa, 3 algorta
f Hire Ondoan Zentru Pedagogikoa

hire ondoan
PEDAGOGIA
Astelehenetik barikura
Hitzordua aurretik hartzea komeni da
iranzu arroita jauregi gutierrez
pedagogia lizentziadun

MacNamara School of English

INGELESA DENONTZAT
• 3 URTETIK AURRERA
• TALDE TXIKIAK
• MINTZAMENA
• AZTERKETA OFIZIALAK
• BUSINESS...

MARUTZE 7, 48610
URDULIZ
T: 669 541 108
WWW.MACNAMARASCHOOL.COM
INFO@MACNAMARASCHOOL.COM

ACADEMIA VILLAMONTE AKADEMIA
• TALDE TXIKIAK
• BANAKAKO ARRETA,
JARRAIPENA eta EGOKITZAPENA
• AZTERKETEN PRESTAKETA

ESKOLA-ERREFORTZU ZENTROA
CENTRO DE REFUERZO ESCOLAR
TDAH eta dislexia tratatze lanean esperientzia dugu.
Experiencia trabajando con TDAH y dislexia.
LEHEN HEZKUNTZA / PRIMARIA
DBH / ESO
BATXILERGOA / BACHILLERATO
SELEKTIBITATEA / SELECTIVIDAD
BESTELAKO IKASTARO ETA MAILAK / OTROS CURSOS Y NIVELES

634 721 181 academiavillamonte@gmail.com Villamonte kalea • ALGORTA

Helduen euskalduntzea, errom



Ikasleen motibazioa aldatzeak eskolak emateko moduan ere aldaketak eragin ditu. HODEI TORRES



**Irailak
3- 21
Septiembre**

**Titulu ofizialak
Títulos oficiales**

- B1, B2, C1 -

Udalaren bekak,
%100eraino
Becas del Ayuntamiento,
hasta el 100%

18/19

Matrikula epea zabalaik
Plazo de matriculación abierto

HADEx diruz laguntza

**ASPALDIKO!
EUSKARA
BERRIRO
ZURE
BIZITZAN.**

Astrabudua
Altzaga

944 676 075 - euskaltegia@erandio.eus
Desanexio kalea 4, 3.a (Bekoa ikastetxea)
ALTZAGA



E!
Erandio
UDALA
AYUNTAMIENTO
www.erandio.eus

antizismo bako aroan sartuta

Agerikoa da euskara ikasteak edo beste hizkuntza bat ikasteak ez daukala esangura bera gurean. Hala ere, euskaltegietara jotzeko arrazoiak zeharo aldatu dira, Uribe Kostan helduen euskalduntzean dabiltzanen esanetan.

UNAI BREA ▶

Bi mila lagun baino gehiagok jardun zuen euskara ikasten 2017/18 ikasturtean, Uribe Kostan dauden hamaika euskaltegietan. Gaur-gaurkoz inori ez zaio bururatu gaiaren gaineko neurketa zorrotz bat egitea, eta horrenbestez ezin eman daiteke portzentaje zehatzik, baina sektorean dabiltzanek argi daukate gaur egun kurtso hasiera bakoitzean euskaltegietako atekak jotzen dituzten gehienek helburua ez dela euren burua hizkuntzarekiko atxikimenduagatik euskalduntzea, lanean jarduteko beharko duten egiaztagiria eskuratzea baino. Euskaraz ikasteko oraingo motibazioak ez dira garai bateko berdinak.

Data zehatzagorik ezean, aldaketaren hasiera orain dela pare bat hamarkadatan kokatu du Iratxe Marta Uribe Kostako AEK-ko arduradunak, gutxi gorabehera: «Orain hamabost edo hogeitortu zitaizkigun gehienak euskararen aldeko sentimenduagatik etortzen zitaizkigun, baina profil hori urrituz joan da». Hizkuntz politikak eroan gaitu horretara, Martaren esanetan. «Sortu dugu, edo erakundeek sortu dute, tituluen beharra, eta euskaltegiei eskatzen zaiguna ere asko aldatu da». Martak berak erabilitako berba bat geure eginda, esan dezagun «instrumentalago» bihurtu dela helduak euskalduntzearen kontu hori.

Hizkuntzaren ezagutza egiaztatzen duten agiri garrantzi handia ematea erakundeek euskararen hobe beharrez egindako zerbait dela uste du AEK-ko kideak, baina zalantza dauka emaitza euskararen kalterako ez ote den. «Orain euskaradunak sortzen ditugu, ez euskaldunak, euskalduntze-prozesua askoren hiztegietatik desagertu den berba da». Martaren esanetan, «asko etortzen zaizkigu ez dakit zein epetarako ez dakit zein zertifikazio lortu behar dutela eta horretarako behar beste ordu ikasteko prest daudela esanez, eta ez dute ulertu gura eskatzen duten helburura ailegatzea ezinezkoa dela eskatutako epean.

AGIRIA LORTUTA, UTZI. AEK-koagaz oro har bat dator Jose Legarreta, Erandioko Udal Euskaltegiko zuzendaria. Eta hark esandakoaren ildotik, beraren ustez hobeto aztertuko beharko litzatekeen arazo bat ekarri du gogora: euskaltegian urte gutxi ematen

Zenbat ikasle dago Uribe Kostako euskaltegietan?

Hauek dira 2017/18 ikasturtean euskaltegi bakoitzak izandako ikasle-kopuruak:

Udal euskaltegiak

- Getxo: 593
- Mastutxu (Leioa): 328
- Erandio: 197
- Sopela: 197

AEKren euskaltegiak

- Lauaxeta (Getxo): 292
- Lamia (Leioa): 149
- Jentilbaso (Plentzia): 67
- Jentilbaso (Gorliz): 65
- Urduliz: 14
- Barrika: 15

Besteak

- Jose Antonio Agirre (Getxo): 239

DENERA: 2.156

«Orain hamabost edo hogeitortu zitaizkigun gehienak euskararen aldeko sentimenduagatik etortzen zitaizkigun, baina profil hori urrituz joan da»

IRATXE MARTA LINARES
URIBE KOSTAKO AEK-KO ARDURADUNA

du jendeak gaur egun, garai batekoagaz alderatuta. Behin helburua lortuta, egiaztagiria alegia, ikasteari uzten diote. Martak adierazi bezala, prozesua eten egiten da, ez da euskaldunik sortzen. «Ez da neurtzen zenbat diren, baina oso portzentaje baxua da agiria lortutakoan segitu egiten duena», kexu da Legarreta.

Jarrera hori asko zabaldu da azken urteetan, baina beharba da ez orain arte esandakoaren doinu ezkorrak irakurleari pentsaraziko zion bezainbat. Daborduko aipatu dugunez, neurketarik ez dago, eta egunero errealtate hori bizi dutenek gutxi gorabeherako kalkulua baino ezin dute egin. Legarretak zein Martak esandakotik abiatuta, esan dezagun Uribe Kostako (eta Bizkaiko beste edozein eskualdetako) euskaltegietara joaten direnen hamarretik zazpi lagun ingururen motibazioa izaten dela agiri jakin bat lortu beharra. Besteen kasuan, euskara ikasteko nahiak ez du hain jatorri prosaiko.

Aipa ditzagun, adibide batzuk ematearren, ilobakaz berba egin gura, edo, kanpoan jaiotako batzuengan, bertoko hizkuntzan jarduteko gaitasuna eskuratzeko gogo. Zelangura, gutxi dira huts-hutsetik hastera euskaltegira joaten direnak. Bertan jaiotakoaren artean, 65 urtetik gora daukaten eta ikasketetan euskaraz inongo harremanik eduki ez zutenak dira oinarri ahulena daukatenak, Jose Legarretak azaldu duenez. Beste profil bat, Martaren berbetan, kanpotik etorritako familietako gazteena da, eskolan euskara ikastetik salbuetsita egon arren selektibitatea gairatutako ezinbestekoa izaten dute eta.

ATXIKIMENDUA SORTZEKO HELBURUARI EUTSI. Ikasleen multzo nagusia, edozelan, lanagaz zerikusia daukate arrazoiengatik joaten 25 eta 40 urteko pertsonak osatzen dute. Emakumeak gehiago, Iratxe Martaren pertzepzioaren arabera, baina horretan ere datu zehatzik ez. Helburuak desberdinak izanda, aldatu egin dira eskolak emateko moduak. «Orain akademikoagoa da, esan dezagun», dio Martak. Euskaltegiek euren burua prestatu dute eskari berriei egokitzeko, baina ikasleengan hizkuntzarekiko atxikimendua pizteko helburuari egundo uko egin barik, gure berbakide biek ondo baino hobeto azpimarratu gura izan dutenez. «Esate baterako, euskarazko hedabideak kontsumitzea gomendatzen diegu guk, euskaltegiko eskolen indargarri modura», dio AEK-ko arduradunak, «eta euskara euren ingurua hobeto ezagutzeko tresna dela gogorarazten diegu».

Ikasle-kopuruari dagokionez, urtez urte berdintsua edukitzen dute Uribe Kostako euskaltegiek (ikusita koadroa), gorabehera handi barik. Nahikoa ote? Ezetz pentsatzen du Iratxe Martak: «Daukagun euskaldun-kopurua ikusita, euskaltegietan ikasle gutxi dabilela uste dut; oraindino oso eskualde erdalduna da Uribe Kosta».

PAUSOZ PAUSO EUSKALDUN MASTITXU EUSKALTEGIA

Aurrematricula/Prematrícula
Irailaren 3etik 21era del 3 al 21 de septiembre

HABE TITULO OFIZIALAK EUSKALTEGIAN BERTAN LORTZEKO AUKERA
Euskaraz ikasteko diru-laguntzak

HABE POSIBILIDAD DE OBTENER LOS TITULOS EN EL EUSKALTEGI
Subvenciones para el aprendizaje de euskera

ESKUTIK HELDUTA PAUSOZ PAUSO DE LA MANO HACIA EL EUSKERA

ZURETZAT ERE BAI MASTITXU EUSKALTEGIA

ERANTZUJOZU EUSKARAZ DÍSELO EN EUSKERA

ETXETIK GERTU A UN PASO DE TU CASA

Kalitatezko zerbitzua helburu

Hamilton eskolak daborduko 23 urte bete ditu eta, jaio zenetik, hazi besterik ez da egin. Besteak beste, aurtun, Sopelako egoitza handitzeko aukera izan dute, alboko lokala hartuz. Gaur egun, bederatzi ikasgela daukate bertan; hainbat dinamika garatzeko aukera ematen du horrek. Gainera, horrenbeste ikasgela edukitzeak maila guztietan ordutegi zabalak ipintzeko parada ematen du: goizean, eguerdian eta arratsian ematen dituzte eskolak.

Hamiltonen edozein hizkuntza ikasteko aukera dagoen arren, erabiltzaile gehienek ingelesa, frantsesa eta alemana aukeratzen dituzte, horiek ezagutzeko edo daukaten maila hobetzeko. Urrats denak egiteko aukera dago bertan; horrez gainera, adinari dagokionez, mugarik ez diete ipintzen ikasleei eskolak emateko orduan. Besteak beste, ingelesa 3 urtetik aurrera irakasten dute Sopelako eta Larra-basterrako egoitzetan. Batean zein bestean *English Play-School* izena daukan umeentzako gela berezia daukate: giro alai, ingelesa daukate hizkuntza neska-mutilek esparru horretan. Bestalde, Algortan, zapatu goizetan, 10:30etik 13:30era *English Saturday Play-School* izeneko ikastaroa egiten dute, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako laugarren mailara arteko umeentzat. Oso kurtso dibertigarria da eta urritik maiatzera izaten da.

Beste alde batetik, eskolaz kanpoko ingeles-eskolak ematen dituzte hainbat ikastolatan: Algortako San Nikolas (350 ikasle inguru daukate), Sopelako Ander Deuna (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan), Leioako Betiko, Neguriko Gobela, Galdakaoko Eguzkibegi, eta aurtun Bilboko Escolapios ikastetxean ere bai. Azter-

Edozein hizkuntza aukeran

Hazkundera

Aurtun Sopelako egoitza handitu dute; gaur egun bederatzi ikasgela daukate bertan.

Txikitatik

Umeek ingelesa 3 urtetik aurrera ikasteko aukera daukate bertan.

Eskolaz kanpo

Sei ikastetxetan ematen dituzte eskolak.

Azterketak

Hamiltonen bitartez azterketetara aurkeztu diren ikasleen %90ek gaitzen ditu.



Goizean, eguerdian eta arratsian egoten dira eskolak.

ketei dagokienez, Cambridgeko First Certificate, Advanced eta Proficiency prestatzen dituzte, eta Oxford-Eco B2 titulu berria, Hizkuntz Eskolako tituluak eta Frantsesezko DELF azterketak ere bai. Horietara urtero aurkeztu diren ikasleen %90ek gaitzen ditu. Kalitatezko zerbitzua ematea da haien helburua; nabarmena da horretarako eguneroko egiten duten ahalegin handia.

CURSO
2018
2019
IKASTURTEA

**MATRIKULA
ZABALIK**

J.A. AGIRRE EUSKALTEGIA

Heldu euskarari!



TODOS LOS NIVELES MAÑANA Y TARDE

MAILA GUZTIAK, GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

CURSOS DE PREPARACIÓN DE EXÁMENES OFICIALES
LOS SÁBADOS

AZTERKETA OFIZIALAK PRESTATZEKO IKASTAROAK
LARUNBATETAN

Bulego ordutegia:

Horario de oficina:

09:30 - 13:30

17:00 - 20:00

PARA JÓVENES DE 6 A 16 AÑOS

6-16 URTEKO GAZTEENTZAT

3 HORAS SEMANALES • ASTEAN 3 ORDU
17:30-19:00

lunes y miércoles • martes y jueves
astelehen eta asteazken • astearte eta ostegun

Refuerzo de la asignatura,
aprendizaje lúdico,
tiempo para preparar exámenes
y hacer los deberes.

Ikasgaia sendotzeko,
ikasketa jostagarria,
etxeko lanak egiteko
eta azterketak prestatzeko.

Algortako etorbidea 104
48991 · Algorta (Getxo)

944 606 671

www.jagirre.eus
idazkaritza@jagirre.eus



astialdiko begirale ikastaroa

Begirale ikastaroa:

2018ko urritik 2019ko maiatzera

Asteburuetan, gabonetan eta aste santuko
oporretan.

Prezioa: 450 euro aterpetxeen gastua barne.

Matrikulazio data:

Irailaren 17tik 28ra Bizarra Lepoan
euskara elkartearen bulegoan.

Ordutegia: 10:00etatik 14:00etara eta
astearte + ostegunetan 16:30etik 18:00etara.

Ekarri beharrekoa:

NAN fotokopia, argazki bat eta abonarea
bulegora ekarri behar dira.

Kontu korrante zenbakia:

ES54 2095 0233 10 9102257479

Helbidea:

Martikoena kalea 16, 2. solairua - 4. bulegoa
48992 Algorta
94.491.03.87 | info@bizarralepoan.eus.

Info+: www.bizarralepoan.eus



GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA CURSO 2018-19 IKASTURTEA

ESKAINITZA ETA ORDUTEGI ZABALA
Amplia oferta de cursos y niveles

MAILA GUZTIAK: A1-A2-B1-B2-C1-C2
Todos los niveles

IKASTARO TRINKOAK: 5 ordu egunean
Cursillos intensivos: 5 horas al día

JARDUN BIKOAK: aurrez aurre eta auto-ikaskuntza batera
Sistema mixta: a la vez, forma presencial y auto-aprendizaje

MINTZA-PRAKTIKA: 4 ordu astean (B2-C1)

Eskeola kanpo ekintza esagarriak
Actividades extra-escolares

Romero Kultur Etxe berria (RKE)
Arbet digitalak / Pizarras digitales

OHIKO TALDEAK: 10 eskola-ordu astean
Grupos diarios: 10 horas a la semana

MODULO TXIKIAK: 5 ordu astean
Módulos reducidos: 5 h. a la semana

AUTO-IKASKUNTZA
Auto-aprendizaje

BENDAKETAN: 3 ordu astean
Curso básico para profesionales
de la hostelería y del comercio



GETXOKO UDAL EUSKALTEGI BERRIA [RKE]

Santa Eugenia plaza, 1
(Romo / Itzubaltzeta) Getxo
94 464 62 99 - euskaltegi@getxo.eus

MATRIKULA irailaren 25era arte zabalik
Abierta la matrícula hasta el 25 de septiembre



www.getxo.eus/eu/euskaltegi





**Zu hemen zaude,
AEK ere bai**

EUSKARA-IKASTAROAK

Uribe Kostako AEK

Euskara eskolak
Ordutegi zabalak. A1-A2-B1-B2-C1-C2
Autoikaskuntza, online ikastaroak
Eskaintza bereziak AISA, dendariak, guraso taldeak...

Matrikula zabalik iraila osoan
Izen ematea
Leioa · 944 64 60 63 · lamia@aek.eus
Getxo · 944 30 47 34 · lauaxeta@aek.eus
Plentzia · 946 77 36 07 · jentilbaso@aek.eus
Gorliz · 946 77 36 46 · jentilbaso@aek.eus

<http://www.aek.eus/blogak/uribekosta>
www.facebook.eus/uribekostako.aek

DIRU-LAGUNTZAK

Udal guztietan

Surfaz eta musikaz inguratuta



Antzerkia

Irailak 15, zapatua

Jule

12:30 | Xake plaza (Areeta) | Getxo

Getxo Folk jaialdiaren barruan. Hortzmuga Teatro antzerki-taldeagaz. Familia osoarentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

Azoka

Irailak 15, zapatua

XIII. Bio Getxo

10:00-15:00 | Telletxe plaza (Algorta) | Getxo

Nekazaritza ekologikoko azoka. Sarrera, doan.

Irailak 16, domeka

Bigarren eskuko objektuen aUKera On azoka

11:00-15:00 | Ibarreta plaza | Gorniz

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak antolatuta. Euria bada, frontoian. Sarrera, doan.

Berbaldiak

Irailak 13, eguna

Bilbainos go home? Herri udatiarren problematika

19:00 | Danontzat gaztetxea | Plentzia

Tositik Uribe Kostara jardunaldien barruan. Sarrera, doan.

Historia del transporte público por autobús en Bizkaia

19:00 | Goñi Portal kultur etxea | Plentzia

Plentziaclassic elkarteak antolatuta. Miguel Martín Zurimendi adituagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Irailak 18, martitzena

Porlana edo jana, nekazaritza desarrollismoarekin talkan

19:00 | Kultur etxea | Urduliz

Tositik Uribe Kostara jardunaldien barruan. Doan.

SOPELA | Kosta Fest Udako azken aste-akabuan Kosta Fest jaialdi entzutetsuaren bosgarren edizioa egingo dute Sopelan; irailaren 20tik 23ra artean, dozenaka jarduera egongo da, doan. Besteak beste, Nafarroako El Cumpio Asesino eta Kataluinako La Sra. Tomasa musika-taldeek joko dute. Egitarauan batu dituzten ekitaldi denak hondartzetan, itsas-labarretan, inguruko mendietan, Kurtzio kultur etxean eta udaletxeko plazan egingo dira. Hain justu ere, azken leku horretan kokatuko dute musika-kontzertuen oholtoa nagusia.

Irailak 19, eguaztena

Basker dokumentalaren bideo-foruma

19:00 | Azebarri kulturunea (Algorta) | Getxo

Argibel Euba egileagaz. Euskaraz. Sarrera, doan.

Erakusketak

Irailaren 30era arte

Getxophoto Nazioarteko Irudi Jaialdia

Getxo udalerrria

Informazioa eta egitaraua: getxophoto.com.

Irailaren 17tik urriaren 28ra arte

Emakumea eta Euskal Pilota

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia

Argazki-erakusketa. Sarrera, doan.

Gastronomia

Irailak 16, domeka

Txapelketa: bakailaoa bizkaitar erara

08:00 | Ondiz auzoa | Leioa

Goizean zozkatuko dituzte lursailak; kazolak, berriz, 13:30ean aurkeztuko dira. Sariak 18:00etan banatuko dituzte.

Ikastaroak

Irailak 16, domeka

Egin ezazu zure kometa material desberdinak erabiliz!

10:30-13:30 | Ingurumen Aretoa | Getxo

Ozono Geruza Babesteko Nazioarteko Eguna dela eta. 6 eta 14 urte arteko umeentzat. Sarrera, doan.

Papiroflexia-tailerra

12:00-13:30 | Xake plaza (Areeta) | Getxo

Getxo Folk jaialdiaren barruan. SIKAP-Filipinas elkarteak antolatuta. Sarrera, doan.

Jaiak

Irailaren 14an eta 15ean

Udondoko jaiak

Udondo auzoa | Leioa

Irailaren 10ean hasi ziren arren, bariku eta zapatu honetan segituko dute ospakizunek. Egitarau osoa Kultur Leioako webgunean ikus daiteke.

Irailaren 14tik 16ra arte

Lutxanako jaiak

Lutxana auzoa | Erandio

Egitarau osoa HIRUKA app-an aurki dezakezu.

Irailak 16, domeka

Ondizko jaiak

Ondiz auzoa | Leioa

Jaiak aurreko aste-akabuan izan baziren ere, domeka honetan egingo dute errepikapena. Hala, bakailao-txapelketa, igel-toka, kuartan-lehiaketa eta erromeria egongo dira.

Irailaren 16ra arte

Andra Mari jaiak Urdulizen

Elortza | Urduliz

Jaien bigarren aste-akabua Elortza inguruan egingo dute urduliztarrek. Egitarau osoa HIRUKAren app-an aurki dezakezu.

Kirolak

Irailaren 13tik 23ra arte

Barrikako Udala Tennis Sariketa

Egun osoan | Tennis-pistak | Barrika

Abaroa Tennis kirol-taldeak antolatuta. Maila nagusiko jokalarientzat eta beteranoentzat. Aurretik izena eman beharra dago: barrikatenistaldea@gmail.com

Musika

Irailaren 13tik 16ra arte

Getxo Folk Jaialdia

Xake plaza (Areeta) | Getxo

Korrontzi, Txarango, Eleftheria Arvanitaki eta Fairport Convention izango dira kontzertu nagusien protagonista. Gainera, kontzertu gehiago, banda-desfileak eta Munduko Terraza egongo dira. Informazioa: getxo.eus

“Hitzak dantzatuko” dituzte domeka honetan, Algortan



ALGORTA | Hitzaren Dantza Musika, bertsoa eta dantza uztartzen dituen ekitaldia irailaren 16an egingo du ALBek, 11:00etatik aurrera.

Euskal Ezkontza

Irailak 16, domeka

Astrabudua



11:30 Gonbidatuen topaketa, Don Tomas parkean, elizaren ondoan.

12:00 Eztei-segizioaren irteera, senargaiaren (Atxebidea, 7) eta emaztegaiaren (Atxebidea, 8) etxeetatik.

12:15 Irakurketa, elizan.

12:30 Kantagunea taldearen ondoetorria eta eskaintza ezkonberriei, Josu Murueta plazan.

13:30 Ezkontza-hitzaermenaren eta kontratuaren irakurketa, Mendiguren plazan.

14:00 Aurrekua.

14:30 Herri-bazkaria.

18:00 Erromeria.

Antolatzailea: Trabudu Dantzari Taldea.

Irailaren 14tik 16ra arte

Musikalean jaialdia

Altzaga eta Astrabudua | Erandio

The Farra Marching Band, Rock'n Brass, Les Bizounours, Barba Dixie Band, Majareta Brass Band eta Poussez Pas Mémé taldeek Altzagako eta Astrabuduko kaleetan ibiliko dira, bariku arrastitik (20:00), domeka eguerdira arte (12:30).

Irailak 14, barikua

Markos Untzeta eta Esku Hutsik

19:00 | Udaletxeko bilkura-aretoa | Gorniz

Plentziako eta Gornizko Euskara Agenda bateratuaren barruan. Sarrera, doan.

Erandioko Kantagunea

19:30 | La PLaza taberna (Altzaga) | Erandio

Parte-hartzea libre.

Los Txikis (bilbainadak)

20:30 | Udondo auzoa | Leioa

Udondo auzoko jaien barruan. Doan.

Ze Esatek

23:00 | Elortza | Urduliz

Andra Mari jaien barruan. The Cool Clown Clan taldeak ere joko du. Doan.

Irailak 15, zapatua

D-TOX eta Faltons (punk)

21:00 | Plaza Beltza kulturunea | Sopela

Sarrera: 3 euro.

Bestelakoak

Irailak 16, domeka

Lurrunezko lokomotorrez bidaia

Plentzia-Larrabasterra

Informazio gehiago: plentzia.org

HIRUKA app agenda!

Egunero Uribe Kostan dauden jarduera eta ekitaldiak ezagutzeko, herriz herri eta egunez egun sailkatuta.



Uribe Kostako eskaintza

Urtean osoan zehar askotariko kultur ekitaldiez goza daiteke han eta hemen, herriko plazetan zein areto estalietan. Eskaintza hori erakunde publikoek, pribatuek zein herrietako taldeek osatzen dute, elkarlanean edo modu autonomoan. Gainera, orokorrean, eskualdean gero eta eskaintza zabalagoa aurki daiteke euskara hutsean.

IKER RINCON MORENO ►

Uda amaitzean dago, eta horregaz batera urtaro horretan herriz herri ospatzen diren jaien maratona. Fes-tek askotariko ekitaldiez betetzen dituzte udalerrriak, hurbiltzen diren denen gozamenerako, hala nola dantza-ikuskizunak, kontzertuak, bertso saioak, kalejirak eta antzerkiak. Ukatu ezina da udaldian egon ohi den kultura-eskaintza paregabea eta zabala dela Uribe Kostako herri dene- tan; baina, kulturari lotutako agenda hori udara mugatzen da bakarrik? Ez, noski. Urtean zehar eskaintza zabalaz goza daiteke han eta hemen, herriko plazetan zein, eguraldiak laguntzen ez duenean, leku estalietan. Horretaz arduratzen dira Uribe Kostako erakunde publikoak, kasuan kasu, udalak zein Mankomunitatea, besteak beste. Herrietako taldeek eta elkar- teek ere beste horrenbeste egiten dute, berton topa daitezkeen eskaintza ahalik eta pluralena izan dadin. Hortxe daude, ber- barako, erakunde pribatuak, euskalgintzako elkarteak eta he- rrigintzako taldeak.

Bakoitzak bere eragin eremua du, eta antolatzen dituz- ten jarduerak gizartearen zati jakin bati bideratuta egon ohi dira. Horiek denak batuz gero, gizon-emakume denek izaten dute zertaz gozatu, bakoitzaren interesen arabera. Berbarako, Getxoko Nazioarteko Folk Jaialdiagaz dantzan ibili ahal- ko da aste-akabu honetan Areetan; domekan, aldiz, antzinako tren batean ibilaldiak egin ahal izango dira Sopela eta Plentzia ar- teko trenbidean; era berean, barikuan, kantan ibiltzeko auke- ra egongo da Erandioko Kantaguneari esker; nazioarteko iru- di bitxi eta ikusgarriez txundituta gelditzeko ibilbideak egin daitezke hilabete osoan zehar Algortan; eta eskualdeko askota- riko arazoez hausnartzeko jardunaldiak egongo dira datorren astean, herriz herri.

Alex Ygartua Fernandez artista eta kulturgile gorliztarrak azaldu duenez, Uribe Kostan aurki daitezkeen kultura-eskain- tza musikagaz dago lotuta gehienbat, «udalerrietako agenda kulturaletan askotariko diziplinak dauden arren». Ygartuak

Musika

«Agendetan askotariko diziplinak presente dauden arren, musikari lotutakoak dira gehien kontsumitzen direnak»

Hizkuntza

«Lehen gaztelerazko ekitaldiak kontsumitzen ziren gehienbat; orain jendea euskarazkoak kontsumitzeko ohitura hartzen hasi da»

Metro linea

«Metroak mugikortasuna areagotzen du eta horrek eragin zuzena du jende gehiago erakartzeko kultura saioetara»

Herriko eragileak

«Eskualdean elkarte eta eragileen sare oso indartsu bat dago. Askotariko ekitaldiak antolatzen dituzte urtean zehar»

dioenez, antzerkia, dantza eta horrelakoak ere ikus daitezke, udan batez ere, eguraldiak laguntzen duenean mota horreta- ko ekintzak eta jaialdiak kalean egin daitezkeelako. «Tama- lez, gainontzeko sasoieta mota horretako ekitaldiak gutxiago ikus daitezke», deitoratu du.

Egunez egun eta astez aste, agendetan topa daitezkeen ekin- tzak auzokideen beharren arabera egiten direlakoan dago Ygartua: «Uste dut herriko jendearentzat egiten direla gau- zak». Hala ere, aitortzen du zenbaitetan kanpokoei ere arreta eman behar zaiela, jende gehiago erakartzeko. «Herriak ezagu- tarazteko eta bertako ekonomiak suspertzeko baliagarria izan daitezke mota horretako ekitaldiak», azaldu du. Horren adibide izan daitezke kontzertu handiak, antzezlan ospetsuak eta na- zioarteko jaialdiak. Udaldian zein urtean zehar, ospea eta in- darra hartzen hasi diren ekitaldiak aurki daitezke eskualdean. Berbarako, une honetan martxan dagoen Getxophoto Getxoko Nazioarteko Irudi Jaialdia. Ekimen horri esker, 5.000 bisitari baino gehiago hurbildu zen iaz Getxo udalerrira munduko ho- gei bat artistaren ikus-entzunezko lanak ikustera, antolatzai- leen datuen arabera.

Beste adibide bat izango litzateke joan den urtean Plentzian aurkeztu zuten Plentzia Kulturaz egitasmoa. Arduradunek azaldu zuten, hiribildua kulturaz «jantzi nahi duen» ekime- na da, «jendea kulturaz blai busti eta herrian kulturaz hitz egi- tea nahi duena ere bai». Era berean, sortzaileei laguntza es- kaini gura die egitasmoak, euren artea auzokideei erakusteko aukera emanez. Horretarako, aurreko urteetan indarra hartzen hasi ziren hainbat ekitaldi marka horren pean ipini zituzten, eta emaitza paregabea izan da, bertako zein kanpoko herri- rarak hurbildu baitira eta hurbiltzen segitzen baitute, jarduera artistiko horiez gozatzera.

NORK ANTOLATZEN DITU KULTURA EKITALDIAK? Udalerrietako eskaintza kulturala udalek zein herrietako askotariko taldeek antolatzen dute. Batzuetan elkarlanean, eta beste askotan modu autonomoan. Azkenengoen kasuan, erakunde publikoek betetzen ez dituzten gabeziei aurre egiteko antolatzen dituzte gauzak sarritan. Berbarako, ohikoa da eragileek euren pro- blematikei lotutako berbaldiak ematea aldiro, dantza-taldeek ikuskizunak taularatzea ikasturte-amaieretan eta ospakizun zehatzetan, edo askotariko kontzertuak entzutea tabernetan edo gunen alternatiboetan. Aukerak amaigabeak dira. Ygartuak dioenez, elkartearen sare oso indartsua dago eskualdean, eta ekin- tza asko antolatzen dituzte. Hala ere, aitortzen du hain- batetan talde horiek arazo ugari izaten dituztela ekimenak an- tolatzeko. Alde batetik, traba administratiboak egon daitezke, kalea erabiltzeko baimenak eskatzeko orduan, berbarako. Bes-

Zelakoa da Uribe Kostako udalerrietan dagoen kultura-eskaintza?

GALDEKETA: KERMAN SANTIAGO ALKORTA



«Ona da, baina orokorrean jendea ez dago ohituta kultura jarraitzera. Beharrezkoa da gehiago bultzatzea»

MANEX UNZURRUNZAGA MARTINEZ
ALGORTA




«Beharrezkoa deritotz euskara gehiago bultzatzeari. Kulturak eta euskarak batera joan behar dute, nahi eta nahi ez»

ARANTXA MARTINEZ GONZALEZ
ERANDIO



«Eskaintza egokia dela deritotz, eskura izaten dut nahi dudana eta nahi dudanean. Bilatu besterik ez da egin behar»

DAYANA CEBALLOS MENDEZ
GETXO



«Gehiago bultzatu behar da kultura. Pertsona batek izan dezakeen armarik potenteena jakintza bereganatzea da»

JULIAN POCAÑI PINEDO
ALGORTA

kulturala, azterbide

HIRUKAren app berria, eskuragarri

Uribe Kostako eskaintza, agenda bateratu batean

HIRUKA komunikazio-taldeak argitaratzen dituen albiste, argazki eta bideo denez gainera, udaren hasieran kaleratutako gailu mugikorretarako aplikazioa Uribe Kostako kultura-eskaintza zabalaren berri ematen hasi da bere agendaren bitartez.

Agenda herriz herri banatuta dago, baina Uribe Kosta atalean eskaintza orokorra topa daiteke, kronologikoki sailkatuta.

Lehen begi-kolpean ekitaldi denak ikus daitezke, edo ataletan antolatuta, erabiltzaileak bere interesen arabera bilaketa egin dezan:


- Ikuskizunak
- Azokak eta erakusketak
- Gastronomia
- Kirolak
- Ikastaroak eta berbaldiak
- Txangoak
- Jaiak
- Umeak
- Bestelakoak

Azpmarratzekoa da umeen atalari indarra eman gura izan zaiola, eskualdeko gurasoek bilaketa azkar batean eskaintza zer-zelakoa den ikusi ahal izateko.

Ekitaldi denak kronologikoki antolatuta daude, baita herriz herri kokatuta ere. Jarduerak non izango diren zehazki jakinarazten da, geolokalizazioaren bitartez. Lekueta heltzen jakiten ez dutenei, gainera, zelan ailegatu jakinaraziko dio aplikazioak berak.

Ekitaldi denak aplikazioan agertzeaz gainera, erabiltzaileak jarduera zehatzak gorde ditzake bere gailu mugikorraren egutegian edo agendan bertan.

Agendan ekitaldiren bat agertzea gura dutenek, antolatzailerak jarduera horren informazioa helarazi beharko dio HIRUKAri_agenda@hiruka.eus helbide elektronikoren bitartez.



tetik, talde horien ekonomia ez da oso oparoa izaten, eta azpiegiturak lortzeko arazoak izaten dituzte askotan. Hala ere, mugimendua egon badagoela eta gero eta indar gehiago hartzen ari dela iragarri du artistak. «Orain dela hainbat urte geldialdi moduko bat egon zen eskualdean, krisiagatik edo. Mugimendua ia-ia desagertuta zegoen. Orain, aldiz, gero eta handiagoa da hori. Gazte gehiago dago kulturaren alde lan egiteko eta gauza asko antolatzen hasi dira, gogotsu daude». Egoera hori aprobeztatu beharra dagoela ere uste du Ygartuak, «udalei presioa egiteko eta gauza gehiago lortzeko».

Hizkuntzari dagokionez, orain arteko joera kultura gazteleraz kontsumitzea zela dio kultur gile gorliztarrek: «Lehen gaztelerazko gauzak egin, antolatu eta kontsumitu ohi ziren gehienbat». Hala ere, horri buelta eman zaiola ziur dago Ygartua. Dioenez, orain udalek eta herriko eragileek gero eta konpromiso handiagoa hartu dute euskarazko ekitaldiak antolatzeko; ondorioz, herritarrek ere mota horretako saioak kontsumitzeko ohitura hartu dute.

Lehen esan bezala, eskaintzari dagokionez musikari lotutako saioak izaten dira nagusi eskualdean Ygartuaren ustean; eta horiek dira kontsumitzaile gehien biltzen dituzten ekimenak. «Antzezlanak programatzen direnean, publiko gutxiago egoten da. Baina hezkuntza arazoa da. Ez gaude ohituta mota horretako gauzak kontsumitzera. Musikaren kasuan, aldiz, txikitatik barneratuta dugu mota horretako ekimenak jasotzea. Horixe kontuan hartu behar dugu herritarrok, udalek eta kultura antolatzen duten eragile denek: jendea hezi behar dugu arlo horretan».

IRISGARITASUNA, MUGIKORTASUNAREN ISLA. Uribe Kostako ia herri denak elkarregaz konektatuta daude Metro Bilbaoren linearen bitartez. Hori dela eta, ohikoa da erandioztar bat Getxoko kontzerturen batean ikustea edo plentziar bat Sopelako antzezlan batean egotea. Metroak herri batetik bestera mugitzeko aukera paregabea eskaintzen du, arina eta erraza. «Mugikortasun horrek eragin zuzena du jende gehiago hurbiltzeko saio batera edo bestera», ondorioztatu du gorliztarrek. Adibide ipini ditu Plentzia eta Gorliz udalerriak. Izan ere, dioenez, ohikoagoa da jende gehiago biltzea lehenengo herrian egin den saio batean bigarren baina: «Metroko sarbidea izatea oso garrantzitsua da inguru honetan».

AGENDA BATERATU BATEN BEHARRA. Gaur egun, udal bakoitzak bere agenda kaleratzen du aldiro, denbora-tarte zehatz batean udalerrian aurki daitekeen kultura-eskaintzaren berri ematen duena. Dena den, horretan ez dira ekitaldi denak agertzen, askotan herriko taldeek antolatzen dituzten saioak barneratzen ez dituelako. Hori dela eta, Ygartuak uste du beharrezkoa dela ekitaldi den-denak, edo gehienak behintzat, hartuko litzuzkeen agenda osatu bat egotea. Are gehiago, udal-agendak beharrean eskualdeko agenda bateratu bat egotearen alde agertu da, baina «herrien idiosinkrasia» galdu barik: «Agenda komun bat egotea beharrezkoa da, dena bateratuta egoteko, den-dena momentuan aurkitzeko eta informazio dena eskuetan izateko. Modu horretan, herrien eta auzokide denen arteko elkarrenergina errazagoa izango litzateke».

Ideia horri helduta, HIRUKA komunikazio-taldeak oraindino existitzen ez den agenda bateratu hori sortzeari ekin dio, udan kaleratu zuen gailu mugikorretarako aplikazioaren bitartez. Orain arte, horretan udako jaien berri eman duen bezala, datozen hilabeteetan eskualdeko herri denetan, Lemoizetik hasi eta Erandiora arte, egunez egun eta orduz ordu egongo diren ekitaldi denak aurkeztuko ditu. Hala ere, horretarako uribekostarren laguntza beharko du, HIRUKA osatzen dutenek ezinezkoa dutelako udalez aparte antolatzen diren jardueraren berri izatea. Hori dela eta, mota horretako ekitaldiak eta saioak antolatzen dutenek horren berri eman ahal izango diote HIRUKAri agenda horretan agertu ahal izateko. Horretarako, jarduera horren nondik norakoak baino ez dituzte bidali behar izango, agenda@hiruka.eus helbide elektronikora. ◀

NEREA AGIRRE MORAGUES | Errugbilari algortarra

«Lesioagatik kalitatea galdu ez dudala frogatuko dut»

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Nerea Agirre Moraguesek aitortu duenez, negar egin zuen denboraldi honetako lehenengo entrenamenduan, Fadurako errugbi-zelaiko belarra berriro zapaltzean; urte bat eman du errugbitik kanpo lesio batenatik. Nazioarteko jokalaririk algortarrak sendi-tradizioetik jaso ditu Getxoko kolore hori-beltzak eta errugbiaren grina. Zortzi urte zituela hasi zen jokatzeko, mutilakaz; orain, 25 urte gaz, Tokioko Olinpiar Jokoak ditu helburu.

Basque Team fundazioaren beka jaso berri duzu. Zertan datza hori? Diru-kopuru bat da, entrenamendua lan modura hartzeko. Goiz eta arrastian entrenatzen dut eta errugbira soilik dedikatzen naiz. Hala, errugbiak bizi naiteke.

Hori barik goi-mailako lehiak ibil zintezke? Gurasoen laguntzagaz, bai; bestela, ez.

Ezker sorbaldako ebakuntza egin behar izan zizuten iaz. Zelan doa errehabilitazioa? Guztiz eginda daukat. Gogorra izan da, urte osoko errehabilitazioan min fisiko eta psikiko handiak pairatu ditut. Latza izan da, baina prest nago daborduko.

Zeintzuk dira zure hurrengo helburuak? Lehendabizi, Getxogaz sentsazio onak izatea zelaian. Ondoren, berriz zazpiko taldean sartzen ahaleginduko naiz. Horiek izango lirateke premiazkoenak. Hortik aurrera: Munduko Serieak jokatzeko, Olinpiar Jokoetara joatea... Baina apurka-apurka ibiliko naiz: lehenengo Getxo Rugby Taldeagaz disfrutatzea eta ondoren beste kontuak etorriko dira, banan-banan.

Zein da Tokioko Olinpiar Jokoetara heltzeko daukazu egutegia? Esan legez, lehenengo urratsa da Getxogaz eta nire buruagaz zelaian ondo sentitzea. Ondoren, entrenatzaileari erakustea ondo jokatzeko dudala, kalitatea ez dudala galdu frogatu



Agirrek Uribe Kostako emakume denak gonbidatu ditu Fadurara joan eta errugbian probatzera. HODEI TORRES



© BASQUE TEAM

Basque Team bekak

Basque Team fundazioak joan den uztailaren 27an ospatu zuen hamargarren urteurrena, modu xelebrean: egun horretan aurkeztu zituen aurreko beka jasoko duten 52 goi-mailako kirolariak eta hamaika teknikariak; denera, 580.000 euro lortuko dituzte. Multzo horretan eskualdeko kirolari ezagun asko batu da. Bekadun berriak dira Nerea Agirre eta Uri Barrutieta errugbilariak, Garazi Sánchez surflaria, Virginia Díaz arraunlaria, Diego Arana belar-hockeyko jokalaria eta Aitor Santiesteban eta Marcos César Morales prestatzaileak. Fundazioaren taldean mantendu dira Bàrbara Pla errugbilaria, Asier García saskibaloiz-jokalaria eta Jon Santacana eskiautzailea.

arte, urte bat jokatu barik eman ostean. Taldean sartu eta Munduko Serieetan lehiatzea dira hurrengo urratsak. Munduko Serisetan ondo egingo badugu, segituan sailkatuko ginateke Tokiorako; bestela, zazpiko errugbian Europako lehenengo edo bigarren geratu beharko genuke edo, horren ezean, sailkapetan sartu, joan den urtean legez.

«Denboraldi berriak, erronka berriak» da Getxo Rugby Taldearen aurtengo bazkidetza-kanpainaren goiburua. Zeintzuk dira erronka berri horiek? Klubeko erronkak dira giro ona izatea eta talde indartsuak eta girotsuak izatea, eta niretzat horiek garrantzitsuak dira. Modu berean, beste asmo bat da errugbiaren filosofia birgogoratzea senior taldeetan eta, azkenik, talde bi horiek berriro ere igotzea. Baina, lehenbiziko asmoa da herriko talde-izaera berreskuratzea. Etxean gaude eta gure buruakaz eta gure kirolagaz ondo sentitu beharra dugu.

Jaitsieraren ostean, Asier Basterretxea Bastek gidatuko du zuen taldea. Orain dela pare bat aste hasi ginen beragaz. Oso gustura nago, kontuak ondo finkatu baititu. Entrenamenduak gogorak dira, baina politak; behar genituen halakoak. Hasi da lagunarteko partidua prestatzen; nik aspaldi ez dut halakorik ikusi. Guretzat motibazio gehigarria da ikustea gura duela gure horrela lan egin, lagunartekoak lantzen Euskal Liga hasi aurretik, guk dena eman ahal izan dezagun. Izugarria da. Gogotsu ageri da, eta dena aurretik prestatuta dauka. ◀



KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

BETIKO IKASTOLA

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84 (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.



Sopela Kosta Fest

Irailak 20-23 2018

Musika + Surfa + Natura

El Columpio Asesino
eta La Sra. Tomasa
jaialdiko buru

Musika eta film laburrak

Irailak 20, eguena

Surfaren gaineko film laburren IV. lehiaketaren sari-banaketa egingo dute, eta filmak emango dituzte udaletxeko plazan.

Irailak 21, barikua

Kataluniatik **La Sra. Tomasa**, Bilboko **Moonshakers** emakumeen rock-laukotea, Iruñeako **The Icer Company** (pop-rocka), **Grises** zestoarrak (indie-pop) eta **Dj Tirry&Teri**.

Irailak 22, zapatua

Nafarroako **El Columpio Asesino**, Leioako **Travellin' Brothers Little Band** (Rhythm & Bluesa), **Melenas** emakume iruindarrak, **Zazkel** bilbotarrak (1980ko pop-rocka) eta **Liher** donostiarrak.

Ekimen nabarmenenak

Surf-txapelketak antolatuko ditu EHSFk: elkarteen artekoa, Euskal Surf Zirkuitua, Euskal Herrikoa, beteranoena eta Euskal Bodyboard Zirkuitua.

Kayak-surfeko txapelketa egingo dute Barrika Piragua Taldeak eta Bizkaiko Piragismo Federazioak.

Earth Songs Project taularatuko da: rock-talde indartsu bat. Ume eta emakumeen abesbatza. Rockaren gaineko abesti historikoak. Ikuskizun harrigarria!

Doako ikastaroak emango dituzte: surf-eskolek surf eta surf egokitua eskainiko dituzte; Barrikako Piragua Taldeak, berriz, kayak-surfeko tailerrak.

Parapente-hegaldiak eskainiko dituzte Parapente Bizkaia eta Airetik taldeak. Horrez gainera, Burdin Hesira txangoak, garagardoaren festa eta umeentzako hamaika tailer egongo dira. Interesdunek hilaren 17a baino lehen izena eman behar dute, wegbunean. Parte-hartzaileek bertatik bertara ezagutu ahal izango dituzte surfaren kultura, natura eta gastronomia.

Surf Business Meeting

Sopela Kosta Fest irailaren 20an hasiko da, **Surf Business Meeting** jardunaldiagaz. Hainbat adituk aztertuko dituzte segitu beharreko estrategiak, ingurune digitalean egungo eta etorkizuneko bezeroakaz harremana errazagoa izan dadin. Surfean jarraibide digitalek berebiziko garrantzia dute, eta geroz eta enpresa gehiagoren bilakaerari eragiten diote.

Parte hartuko dutela baieztatu dutenen artean daude honako hauek: Denny Jacconi, Surfline munduko online-komunikabide handienaren Marketing zuzendaria; Olivier Duperray, surf-eskolak kudeatu eta sustatzeko Bloowatch tresnaren arduraduna; Marta Navarro, Smartup gai digitalen agentziako Project & Account managerra; eta Ainara Basurko Beaz foru-erakundeko zuzendari nagusia.



info+: www.sopelakostafest.com

UDAKO ARGAZKI-LEHIAKETA

Baditugu aurtengo lehiaketaren hiru irabazleak, bejondeizuela!

Uribe Kostako abenturazaleen uda irudikatu gura izan dugu. Denera, 40 argazki batu ditugu, eta horien artean egindako zozketan hurrengo hirurek jaso dute saria. Eskerrik asko parte-hartzaile denei!



1 Idoia M. «Ihesean». Bi pertsonentzako gau biko egonaldi bat NEKATUR Nekazal Turismo elkarteko ostatuetan, logela edo apartamentuetan.



2 Victoria B. «Arrats apela». Pertsona birentzako itsaski-jana, Algortako Portu Zaharreko Karola Etxea jatetxean.



3 Andeka Z. «Laga». Pizza bi eta ardo botila bat, Algortako Baster tabernan.



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena
Argazkiak: Hodei Torres
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetabeña
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKAlagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

**Getxophoto Jaialdiari
esker, irailaren 22ko
bisita gidatuaz gozatzeko
5 sarrera bikoitz
zozkatuko ditugu**

Irailaren 22ko (zapateria) bisitaz gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, irailaren 17a (astelehena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Iraileko saria



Bi lagunentzako gosaria, Owl Coffee House komertzioaren ekimenez

Sopelako komertzioari esker, sari hori zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean.

Zozketan parte hartzeko, bidali irailaren 30a (domeka) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

		2						5
	9						6	4
			3		9			
9			6	1				
						5	7	
7							3	6
1			5		8			
3					1	7	2	
				4				

9								1
				3	6	2		
	3					5		
4			5	9			6	
	5		3		2			
			8	6				9
		3						5
2			7					
5				4	1	8		

Soluzioak

Gogoan har egizu
1etik 9ra arteko
zenbaki denek
agertu behar
dutela zutabe,
ilara eta azpilauki
bakoitzean.

3	2	8	1	4	7	6	9	5
4	1	9	3	5	7	8	6	2
5	7	1	2	8	9	3	4	1
6	9	5	4	1	7	8	2	3
7	8	4	2	1	3	6	5	9
2	9	3	7	6	5	1	8	4
6	4	5	6	7	1	2	3	8
8	6	2	9	3	4	5	1	7
1	3	3	1	5	7	8	2	4

1	5	9	3	4	7	6	8	2
8	2	7	1	9	6	5	3	4
3	6	4	5	2	8	9	7	1
9	3	1	5	6	8	7	2	4
6	7	5	4	3	2	8	1	9
2	8	4	2	7	1	5	3	6
7	8	6	5	3	1	9	4	2
4	9	3	2	8	1	7	6	5
5	1	6	9	7	4	2	3	8

Hitza emanda

Txosna

Rutina itzuli da,
iraila heldu da;
baina horrek askori
ez digu ardura.
Beraz goza dezagun
behar den modura:
azken txosna ixtean
bukutzen da uda!



INAZIO
VIDAL
GURRUTXAGA
Leioa



Mundukatuak Saarbrücken

«Frantziar asko etortzen dira hona, merkeago delako Alemania»



Xabi Murgia Esteve

Nongoa
Berangokoa.


Adina
37 urte.

Zertan dabil
Ikerkuntza-lanetan laborategi batean.

Ikasketak
Biokimika.

Noiz heldu zinen?
2014ko urtarrilean.

Noiz arte bertan?
Ez daki noiz bueltatuko den.



Lurraldea
Alemania.

Azalera
357.376 km².

Hiria
Saarbrücken.

Biztanleria
179.709 (2016).

Hizkuntzak
Alemaniera da hizkuntza ofiziala eta nagusia. Danesa, soraboa, erromaniera eta frisiera hizkuntza gutxiak dira Alemanian, eta bertakoak balira bezala onartuta daude. Saarbrückenen, gainera, frantsesa askotan entzun daiteke eta, horregaz batera, alemanaren dialekto propioa darabilte: *saarlandisch*.

Moneta
Euroa.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: LOKILECH ▶

Helmholtz Alemaniako erakunde zientifikorik handienean lan egiteko bizilekua aldatu zuen Xabier Murgia Estevek duela lau urte. Berango jaioterria atzean utzi eta Saar estatu federatuko hiriburura joan zen 2014an, Saarbrückenera, alegia. Estatuari izena ematen dion ibaiaren bazterrean kokatuta dago hiria, eta hegoaldean Frantziako Lorena eskualdeagaz muga egiten du. Hori dela eta, Frantziaren, Belgikaren eta Luxenburgoren eragina izan du historian zehar Saarbrückenek. Berbarako, Murgiak azaldu duenez, kultura horiek denak batzen dituen dialekto propioa darabilte bertan: *saarlandisch* izenekoa, «frantsesezko hitzak eta Luxenburgokoak erabiltzen dituzte horretan». XIX. mendeko industria-iraultzagaz batera asko hazi zen hiria, eta garai horren aztarnak oraindik ikus daitezkeela igarri du berangoztarrak: «Bilbon eta Bizkaian bezala, meatzaritza garrantzitsua izan zen garai batean hemen, baina orain industriagune horiek denak galdu eta unibertsitatearen eta ikerkun-

tzaren inguruan suspertu dute hiria». Garai industrial horien lekuko da hortik gertu dagoen Völklingengo burdingintza izenagaz (alemanez *Völklinger Hütte*) UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatu zuen burdin lantegia. Horrez gainera, bestelako hainbat leku ere bisitatzea merezi dutela dio Murgiak, hala nola hiriko erdigunea osatzen duen St. Johanner Markt plaza eta Nauwieser Viertel bohemioen auzoa. Bizitza handiko hiria da Saarbrücken eta horretan txonbo egiteko lekuri proposenak garagardotegiak izaten dira, lekuko gastronomiaz blai egiteko eta ohituretan murgiltzeko. Herrialdeko kulturaren nondik norakoak beren-beregi ezagutzeko aukerak ere eskaintzen dituzte hirian dauden museo ugariak. Lasaitasun eta naturaren bila daudenek, oster, Saar ibaiaren meandroaz gozatzeko aukera daukate. Izan ere, Cloef behatokia ikuspegi zoragarriak aurki daitezke, ibaiaren bazterretik 180 metroko altueran. Eguraldiari dagokionez, Murgiak azaldu du neguak bigunak izaten direla, baina «tristeak eta grisak». Udak, oster, bero-beroak izan ohi dira, bertako klima kontinentalaren ondorioz. ◀